

EUSKARA TEKNIKOAREN DIDAKTIKA

Iñaki Ugarteburu Gastañares

Ikerketarekin batera irakaskuntza dugu unibertsitatearen zereginetako bat eta horretarako ezinbestekoa gertatzen da didaktikaren inguruko hausnarketa. Beraz, 1998-99ko zientzia esperimentaleko zentro bateko (Medikuntza eta Odontologia Fakultatea) esperientzia gogoan hartuta, hausnarketa plaza-ratu nahi nuke hemen euskara teknikoaren irakaskuntzaren inguruan. Horretarako, jakina, zertaz ari garen esan beharko dugu, euskara tekniko zer den, alegia.

Badirudi erraz onar daitekeela gaur egun euskara teknikoaz ari garenean LSP edo *xede berezietako hizkuntza* izenarekin ezagutzen ditugun hizkerez ari garela, hau da, espezializazioko hizkerez. Gogora dezagun orain zein diren espezializazioko hizkeren hainbat ezaugarri. Dena den, ez da lan honen asmoa espezialitateko hizkeren buruzko teoria orokorra azaltzea, eta bai aplikazio didaktikorako kontuan izan beharreko hainbat ezaugarri zehaztea. Uste dut, edonola ere, ikuspuntu batetik eta bestetik hausnarketa egitea nahitaezkoa dela, aurrera samartua dagoen eredu estandarraren finkatzearen ondoren, beste azpisistema edo erregistro batzuk finkatzeko kezka ere hainbat hiztun eta erabiltzailerengan ageri delako.

ESPEZIALITATEKO HIZKEREN HAINBAT EZAUGARRI

1. Espezialitateko hizkera hizkuntza orokorraren (sistemaren) azpisistema da. Hortaz, hizkera hauetara hurbiltzeko edo hizkera hauek aztertzeko hizkuntza bera aztertzeko adina abiapuntu edo azterbide egongo dira. Hemen hautatuko duguna linguistikoa izango da, euskal hiz-

kuntzaren une eta egoera honetan eraginkorrena izan daitekeelakoan. Zilegi dira, hortaz, abiapuntu komunikatiboa edo beste hainbat.

2. Espezialitateko hizkera espezialitate jakin batekoa da. Azken batean, espezialitate bat eta beste batzen dituen hizkuntza bera da, corpus lexiko orokorra eta arau-multzoa (gramatika). Pentsa daiteke badela espezialitateko hizkera orokorra dei daitekeen erregistro bat, baina ez dut uste erregistro hori definitzeko esku artean ditugun tresna eta proposamen teorikoek aplikazio didaktiko zuzenik dutenik. Gehienez ere, hizkera formalaz, landuaz, literarioaz hitz egin genezake, baina alde bateko eta besteko espezialitateak bilduko dituen erregistro bakarra mugatzen eta aipatu berri ditugun horietatik bereizten zaila da benetan. Hortaz, espezialitateko hizkeren ezaugarri nagusia bere erreferentzia-mundu kontzeptuala da eta gure ikuspegitik, kontzeptu-paradigma hori izendatzeko erabiliko den lexikoa. Horrela hitz egin dezakegu medikuntzako euskaraz, informatikako euskaraz, euskara juridikoaz...
3. Espezialitateko hizkeren atal nagusia corpus lexikoa da. Aurreko paragrafoan azaldua beste era batera adierazteko, esan daiteke "izendatze" prozesu bat gertatzen dela espezializazioko arloetan. Espezialistak hizkuntzaren corpus lexiko orokorra erabiliko du eta hitz berriak sortuko ditu bere inguruko errealitate kontzeptual horren berri emateko. Hain zuzen ere, espezialitateko hiztegia terminologikoa dela esan daiteke. Hau da, espezialitate horretako unitate kontzeptualak adierazteko unitate terminologikoak erabiliko ditu espezialistak. Horrek ez du esan nahi espezializazioko testuetan unitate terminologikoak bakarrik ditugunik: badira adierazpen unitate berezi zabalagoak ere. Eta horixe da, hain zuzen, espezialitateko hizkera aztertzen duenak (estandarizazio bila, esate baterako) dituen zailtasunetako bat, unitate horiek (unitate sinboliko arbitrario txikienetik unitate testual handienetara, tartean unitate terminologikoak zein fraseologikoak ditugula) zehaztea.
4. Espezialitateko hizkerak estandarizazioa bilatzen du. Espezialistak kontzienteki egiten du terminoen aukera, kontzienteki gertatzen da espezialisten artean errealitate kontzeptual horiek izendatzea, eta espezialitatea nazioarteko diziplina denez (demagun Matematika) bada espezialitateko hizkeran estandarizazio beharra. Horregatik egiten dira aukerak, edo beste era batera esanda, horregatik ezartzen da araua. Araua, bestalde, ez da espezialitateko hizkeretako berezitasuna. Badakigu hizkuntzak ere baduela bere araua (gramatika, alegia, hiztunen kontzientzia edo intuizio linguistikoan ageri dena) eta horretaz

gain, badela gaur egungo gizarte garatuetako hizkuntza gehienetan (komunikazio idatzitik hasi eta media edo komunikabideen garapeneraino) arau arbitrarioa (gehienetan akademi araua), eredu estandarra deitu ohi duguna.

5. Espezialitateko hizkeraren erabiltzaileak (eta testu-sortzaileak) espezialistak dira. Eta haiek dira, hortaz, konbentzio hori finkatuko dutenak. Eta akademi arauarekin gertatu den bezala, garai bateko idazle prestigioedunen eredu hartzetik arau arbitrario idatzi formalizatura bidea egin dugun bezala, espezialitatean ere, gero eta sarriago ditugu nazioarteko konbentzioak, hainbat elkarte profesional eta estandarizazio-erakundek proposatu edo ezarria. Hor ditugu, esate baterako, nazioarteko elementu kimikoen sistemako sinboloak kimikan, nazioarteko neurketa-unitateen adierazpen sinbolikoak teknikan, eta abar. Konbentzio hauetako batzuk diziplinakoak dira, beste batzuk berriz, interdiziplinarrak edo transdiziplinarrak. Ikusi besterik ez dago nola ko aldea dagoen taxonomiatik (zoologian edo botanikan sistema ia sinbolikoak erabiltzen dira unitate kontzeptualetako bakoitza zehazteko eta nazioarteko erabilera batzeko, latinezko izenak alegia; medikuntzan hizkuntza ez naturaleko sistema alfanumerikoak —K1.1., K1.2. eta abar— gaixotasunen nazioarteko sailkapenerako...) gizarte zientzietara: “Hidrogenoak erreferente bera du euskal ikertzailearentzat nahiz beste herrialde batekoarentzat; ez da hala gertatzen, aldiz, herrialde horietako erakunde juridiko edo politikoekin” (Gutiérrez 1998)
6. Espezialitateko hizkeren mugak zehaztea zaila da (haien artean eta hizkuntza orokorretik). Espezializazioko testua “espezialistak” sortua da, baina espezialista hizkuntz erabiltzaile arrunta ere bada, eta beste alde batetik, espezialitateko unitateak poliki-poliki estandarriera ere iragaten dira, nahiz eta iragate hori benetan nola gertatzen den oraindik ere aztertu beharra dugun (azterketa horretan garrantzi bereziko da zientziaren dibulgaziorako testuetan gertatzen den hizkuntz birformulazio prozesuen azterketa): “Objektuen ezagutza zientifikoa gizarteko kulturaren txertatua dagoenean bakarrik sar daiteke hiztegi orokorrean, hau da, sozializatu eta ulergarri bilakatu denean” (Lara, 1991). Gainera, badira testu arrunt espezializatuen itxurakoak, bateko nahiz besteko ezaugarriak biltzen dituztenak: testu eta eskema estereotipatuak (errutina-testuak).
7. Oro har, honako ezaugarri hauek dira testu teknikoari aitortzen zaizkionak: funtzio erreferentziala, teknizismoen erabilera, hizkera deno-

tatiboa izatea, kode heterogeneoaz baliatzea (aurrerago zehaztuko dugu kontzeptu hau), objektibotasuna (zientziari buruzko zabalkundeko testuetan hain nabarmen ez dena eta zientziari buruzko kazetaritzako artikuluetan ez dagoena), unitate linguistikoaren adiera bakarra, argitasuna eta zehaztasuna... Lexikoan testu estandarretan baino teknizismo, hitz eratorri, mailegu, akronimo edo izen abstraktu gehiago egon ohi da (ikusten denez kontzeptu estatistikoa dugu hau, baina maiztasunak berak bakarrik nekez ezar dezake testuaren tipologia). Gramatikan, berriz, badirudi testu estandarretan baino maizago ageri direla izenondo erreferentzialak, koordinazio eta zabalpenak... Hitzak ere maizago errepikatzen dira (halako testuetan ez da sinonimiaz baliatzea gomendatzen; estandarretan, ostera, hitzen errepikapena gaitzetsi egiten da ikuspuntu estilistikotik).

ESPEZIALITATEKO TESTUEN AZTERKETARAKO IKUSPUNTUAK

Hasieran esan bezala hainbat ikuspuntu har daitezke espezialitateko testuen azterketarako. Azterlan hau didaktikarako proposamena denez, honako hauek gerta daitezke egokien: terminologikoa (nazioarteko normalizazio edo estandarizazio prozesuak edo aurrerago aztertuko ditugun terminologia arazoak aztertuz: hizkuntza naturala oinarri delarik, finkatze bidean dauden terminologia teknikoak eta nomenklaturak); diskurtsiboa, testuaren etengabeko birformulazioa gertatzen baita testu zientifiko-teknikoetan, ikasleentzako edo zabalkunderako testuetan edo gai teknikoak erreferente hutsa den kazetaritzako testu arruntetan (pentsa daiteke bada, teknikotasuna testuari lotua dagoela, ez erreferenteari); kognitiboa, jakintza bera aztertu eta jakintza hori unitate espezializatu ageri edo ezkutueta nola agertzen den aztertuz. Ikuspuntu hauekin batera komeni da ikuspuntu diakronikoa ere kontuan izatea, hizkuntzarekin batera zientzia ere aldakorra delako (aurrerapenari lotua).

CORPUS LEXIKOA ETA DIDAKTIKA

Lehen esan bezala, corpus terminologikoa dugu espezialitateko hizkeretan, eta corpus horretan badira izaera desberdineko unitateak: hizkuntza naturalakoak edo sinbolikoak. Bestalde, bada lotura zuzena espezializazio-maila eta forma linguistikoaren artean (Hoffman 1984). Abstrakzio maila handiene-

ko testuetan (zientzia teorikoa) sinbolo artifizialak erabiltzen dira elementu eta erlazioetarako. Zientzia esperimentaletan berriz sinboloak erabiltzen dira elementuetarako baina hizkuntza orokorra erlazioetarako (sintaxia alegia). Zientzia aplikatuan (eta teknikan) hizkuntza naturala da hizkuntz forma nagusia eta terminologia espezializatua erabiltzen da. Abstrakzio maila apalagoko arloetan (kontsumoan esate baterako) hizkuntza naturala erabiltzen da eta sintaxi librea, termino espezializatu batzuekin.

CORPUS LEXIKOAREN EZAUGARRIAK

LSPen didaktikaren eztabaidan hainbat kontu izan behar genituzke kontuan, lexikoari dagokionez.

Espezialitateko hizkeren oinarrizko corpus lexikoa hizkuntzaren lexiko orokorra da. Hortaz, finkatze prozesuan espezialitatekoa orokorraren mendean egongo da. Jarrera deskribatzailearen arabera (eta ez dago hizkuntzalari-ritzarik haren objektuaren, hizkuntzaren, deskribapenik gabe). Hortaz, espezialitateko testuen azterketa deskribatzaileak emango digu espezialitateko hiztegi errearen berri, baina hizkuntza sistemak hitzun erabiltzaileek osatzen dutela diogunean jarrera murriztailea hartzen dugu, ez baitugu kontuan hartzen egoera horretan eragiten duten hainbat faktore, hala nola faktore soziolinguistikoa. Izan ere, ez dirudi gaur egun espezialitate gehienetan hizkuntz gaitasunaren jabe diren euskal hitzunak ditugunik; aitzitik, errealitate diglosikoak erakusten digu espezialitateko hiztegien diren hutsuneak beste sistema batzuetako unitateekin osatzen direla. Espezialitateko hiztegiak beste hizkuntza batzuetako hitzak hartzea bide naturala litzateke (maileguak hartzea, kasurako) baina ez hizkuntzak berak hitz horiek izanik, espezialista horiek ezagutzen ez dituztelako besteetara jotzen dutenean.

Horrela hartzen ditugu maileguak; esate baterako “antibiotiko”, espezialitateko erreferente kontzeptual berri bati erantzuteko sortua, euskarak mailegatu egin du. Beste batzuetan berriz, hizkuntza estandarrean darabilgun terminoa polisemikoa gerta daitekeenean, mailegura joko dugu espezialitateko terminoa osatzeko: hala darabilgu “medikuntza publiko” (cf “herri-medikuntza”).

Maileguak ezinbestekoak ditugu espezialitateko hizkuntzan, baina kontuan hartu beharko genuke badirela onargarriagoak: *antropologia* bezalakoak, eta oro har kultur temaz osaturikoak; nahiz eta halakoetan ere aukera baden euskararen bide patrimonialek jotzeko. Dena den, ez da beti erraz erabakitzen.

Arazoa gertatzen da bereziki izenondo erreferentzialetan. Hau da, izenondoa erabat lexikalizatua egon daiteke (*Ozeano Atlantikoa*), izenondoak kultur tema bati erreferentzia egin diezaiokete (*nerbio faziala?*) edo beste hiztegi bateko hitz arrunt bati (*min pulmonarra???*). Jakina da azken horri ez dugula batere onargarria, edo beste era batera esanda, hizkuntza orokorreko hiztegi arau-emaile bat dugun bezalaxe (irizpide linguistikoetan oinarritua, nahiz eta badakigun objektibotasun erabatekorik ez dagoela eta denok garela historiaren mendean) espezialitateko hiztegi arau-emailea ere beharko genuke (hau ere hizkuntz irizpideetan oinarritua), besteak beste 'mailegatu edo sortu' auziari erantzuteko.

ALDAKETA TERMINOLOGIKOA

Gainera aldaketa terminologikoa hizkuntz orokorrean bezalaxe, espezialitatekoan ere gertatzen da (benetan egokia ote da pentsatzea espezialitateko termino bakoitzak kontzeptu bakarrari egiten diola erreferentzia eta alderantziz?)

- a) Badira aldaketa grafikoak: *balio erantsiaren gaineko zerga / BEZ; oxigenoa / O; ez Hodgkin / ez-Hodgkin; fisikokimiko / fisiko-kimiko...* Hauek denak konbentzionalak gertatzen dira eta ez dute hizkuntz oinarririk. Eredu estandarrean eta erregistro arruntean ez bezalako garrantzia hartzen dute hizkera zientifiko-teknikoan eta oro har espezialitateko hizkeretan.
- b) Aldaketa morfosintaktikoak: *industri(a) ekoizpena / ekoizpen industrialia; ikasle gela / ikasleen gela; irakaslearen lanbidea / irakasleen lanbidea...* Hauetako batzuk *egokiagoak* gertatzen dira eredu estandarrean beste batzuk baino: oro har, euskara izen elkarketaz baliatu ohi da nagusiki izenondo erreferentzian ordainak emateko, mailegutaz baino. Hortaz, garrantzizkoa gertatzen da agerian jartzea espezialitateko hizkuntzek hautu horretan zein eskakizun duten (terminologikoa nagusiki).
- c) Aldaketa morfologikoak: *Mesiasen etorrera / Mesiasen etortzea; normalkuntza / normalizazioa; formaldu / formalizatu; kutsapena / kutsadura...*
- d) Aldaketa lexikoak: *oxigenoa / airea; terminala / muturrekoa; gaixoa / pazientea; titia / ugatza; arloa / ingurua / gunea / eremua...*

- e) Murriztapen aldaketak: *kalitate (one)ko generoa; (soldadu) gorriak; (capa) mucosa; (azido) sulfurikoa...*
- f) Beste batzuk: *sistema ekologikoa / ekosistema* (eta oro har *eko-* eta *bio-*temen bidez edo, hobeto esanik, tema hauek sortutako adiera berriko temen bidez sortutako elkartuak), *radio / erradio* (estandarizazio terminologikoaren beharreatik eginiko maileguen egokitzapenak)...

ALDAKETA GRAFIKOAK

Aldaketa grafikoak badu balio adierazgarria espezialitateko hizkeretan: konbentzioak ezartzen du, esate baterako, letra tipoa (biribila, etzana, maiuskula txikia...) taxonomietan... Baina nagusiki forma laburtuak ditugu, laburtzapenak alegia. Oro har, laburtzapenak urri dira testu estandarretan (erakundeen izenak...) baina askoz ugariagoak espezialitateko testuetan edo testu zientifiko-teknikoetan (baita teknika arloko testu estereotipatuetan ere). Zientzietako testuetako sinboloek eta testu teknikoetako laburdurek, besteak beste, errepikapena saihesteko bide gertatzen dira (espezialitateko testuetan ez dago sinonimiarik).

Dena den, hiru arrazoi nagusi izan daitezke laburtzapenak erabiltzeko:

- a) Hizkuntz ekonomia. Askotan errepikatzen den hitzari idazkera laburra ematen zaio (*Kim.* adibidez, molde estereotipatuko testuetan, sarre lexikal eta definizioz osaturiko lan lexikografiko batean adibidez). Baina badira beste baliabide batzuk ere espazioa irabazteko, tipografia esate baterako (letra tipo txikiagoa: *NAN, BEZ, HIES...*) hainbat testu teknikotan erabil daitezkeenak.
- b) Adierazkortasuna: *Txomin* (lexikalizatua), *Joxean* (berriagoa)... Espezializazioko testuetatik kanpo dugu erabilera hau (adierazkortasuna bera bezalaxe).
- c) Izen sintagmaren lexikalizazioaren ondorengo laburtzapenak. Honako hauek izendapen prozeduren barnean sortzen dira: *auto, metro...* (iz > izond > iz, sintagmaren murriztapenez). Antzekoak ditugu laburtzapen teknikoaren lexikalizazioak: *HIES / hies*

Estilo liburu gehienetan beste era batera sailkatzen diren arren, honako banaketa hau gerta dakiguke guri erabilgarri, ikuspuntu didaktikotik:

a) laburdurak

a1. hitz laburtuak

a2. sigla edo akronimoak

Elementu motibatuak dira (izan ere, hitz laburtua ez da bere horretan irakurtzen, hitz osoa baizik: *or.* > *orrialdea*; siglak, ordea, lexikalizatuagoak daude eta bere irakurketa propioa izan dezakete) eta irakurleak beti lotuko du laburdura bere erreferentearekin (ez, ordea, oso lexikalizatuak dauden sigletan). Erabilera muga, hortaz, ulergarritasuna izango da, edo beste era batera esanda, irakurlearen gaitasuna hitz laburtua irakurtzean letra edo letra multzo horren ordaina bere corpus lexikoan (terminologikoan) aurkitzeko. Horretarako lagungarri gerta daitezke:

- Ingurua (forma laburtuak bere ingurua behar du): “...*beste atal batean adierazi bezala (ikus 23. or.)*”; testuinguru horretan “orrialde” hitzak baino ezin du bete tarte hori (deskodifikatze sintagmatikoa dugu). Arazo hau pragmatikoa dugu, hortaz.
- Forma laburtuak gutxieneko luzera behar du: “*atzaerelikadura (fisiol.)*”; errazago ulertuko da ‘fisiologia’ laburdura horrekin (‘fisiol.’) motzago batekin baino (‘f.’). Izan ere, ‘f.’ laburdurak *filosofia, fisiologia...* edo beste hainbat ordezka ditzake (deskodifikatze paradigmatikoa)
- Agerpen maiztasuna (espezialitate bateko testuetan edo testu estereotipatu jakin batzuetan maiz agertzen den forma laburra errazago deskodifikatuko da): “NAN”: nortasun txartela; euskal hiztun alfabetuak erraz ulertzen du *NAN* nahiz eta siglek ordezkatzen duten sintagma osoa ezagutu ez, maiz irakurri baitu testuinguru berean.

Hortaz, forma laburtuen erabilera ez dago horrenbeste hizkuntz faktorei lotua (testua espezialitatekoa izateari adibidez), eta bai bestelako eragile komunikatibo eta pragmatikoei. Horregatik, ez dirudi egokia forma laburtua ohiko inguru diskurtsibo eta forma sintagmatikoetan. Bestela gertatzen da komunikazio euskarri eta inguru berezietan (marrazkiak...). Horrela, egokiagoa gertatzen da testu administratibo batean “ikastetxearen urteko plana” edo “Ikastetxearen Urteko Plana” forma laburtua (I.U.P.) baino.

Orain arte azaldutakoaren arabera, erraz uler daiteke hizkuntzaren alde-tik motibatuak ez diren aldaketa hauen finkatzerako egokiago gertatzen dela estilo-liburuetako konbentzioen azterketa hizkuntz analisia baino, baina gogora dezagun hartzaileak testua deskodifikatzeko erabiliko dituen tresnak linguistikoak edo psikolinguistikoak izango direla. Estilo-ohar edo gomen-dioak, bestalde, hainbat arlotakoak izan daitezke:

Erabilera esparruari dagozkionak:

- ez erabili espazio berdinak (edo ia berdinak) sigla edo laburdurarekin (estilo liburu batzuetan aipatzen da gutxienez 4 espazio irabazi behar direla)
- taula, grafiko eta halakoetan letra tipo txikiagoarekin ere jokatu
- testuinguru berezietan erabili (testu barruko atal diskurtsiboetan ez, ahal delarik)

Ortotipografikoak:

- Puntua erabili (or.), grafiko edo taula berezietan ez bada (halakoetan puntua ken daiteke baina tipografiarekin ere joka daiteke, letra-tipo txikiagoa erabiliz). Puntuaren ondoren espazioa jarri; puntua jarri, nahiz eta atzetik koma, galdera-marka edo bi puntu etorri; punturik ez jarri, atzetik azken puntua edo puntutxoak baldin badatoz.
- Banatzea: lerro amaieran ez banatu laburdura bera eta ez banatu laburdura eta harekin doan izena edo zenbakia.
- Morfologia markarik (plurala) ez jarri.
- Atzizkia erabili behar bada, hobe da osorik idaztea

Sigla eta akronimoak ere motibatuak dira eta sintagmaren atal batzuen bidez sortzen dira (letrak edo silabak erabiliz). Silabaka (*HIES, BEZ*), letraka (*GPT*) edo modu mistoan (*HPIN*) irakur daitezke eta, oro har, punturik gabe idazten dira. Izen berezien siglek ez dute artikulurik, izen arruntaren ordain direnean bai. Arazoa ez da sigla bera, izen berezi eta arrunten arteko banaketa baizik; beraz, hizkuntza orokorraren gramatikak erantzun beharko dio auziari (*Euskaltzaindiko / Euskaltzaindiako*). Garrantzi bereziko gertatzen da espezialitatean nazioartean forma bakarria duten akronimoen kasua: *GPT, TSH...* (honako hauek mailegu huts direla esan genezake).

b) sinbolikoak

- b1. nazioarteko neurri-unitateak
- b2. sinboloak (*Kim...*)

Sinboloak dira motibatuak, nahiz eta hizkuntza bateko laburdurak har daitezkeen oinarri (*b*).

Forma bakarria dute nazioartean, erabilera eremuko (kimika, matematika, fisika...) akademia edo zientzialari-taldeak onartua. Paradigma itxia osatzen dute, hortaz, nahiz eta zientziak aurrera egiten duen neurrian unitate eta ikur berriak sor daitezkeen (ikusi nazioarteko unitateen adierazpen zehatza). Sinboloak letra biribilez idazten dira eta ez dute punturik: (Ag). Hauen artean ditugu nazioarteko unitateak *m, cm...*

Honako atal honetan ere hizkuntz arautik kanpoko konbentzioa darabil espezialitateko hizkerak, batez ere ortotipografiari dagokionez. Izan ere, ortotipografiak garrantzia du testu tekniko eta espezializatuetan, adierazpenari zuzenki lotua baitago. Ehunekoan erabileran ikusten da garbiri arau bien arteko aldea:

Ehunekoa % ikurraren bidez adierazten dugu eta dagokion zenbakiaren aurretik jarri ohi dugu (testu edo forma diskurtsiboetan behintzat). Ikurraren eta zenbakiaren artean tarte motza eta zatiezina jarri behar da. Hartaraino dugu arazo grafikoa. Baina ehunekoak adierazteko orduan sortzen den arazorik nagusiena bestelakoa da: %45 / %45a. Baina bien arteko bereizketa ez dagokio ortotipografiari (espezializazioko erabileraren estandarizazioari), ezta akademi arau konbentzionalari ere, hizkuntz arauari baizik. Hain zuzen ere, zenbakiaren bidez adierazten dugun unitate horren kategoriak erabakiko du idazkera: %45, zenbatzaile dugunean (45 unitate alegia). Eta kategoria aldatuta, jakina, adierari lotua dago, ez baitugu gauza bera (a) eta (b)

- (a) "laginen %9 kutsatuak daude eta ez ditugu erabiliko" (zenbat, alegia: 9 lagin)
- (b) "laginaren %9a kutsatua dago eta emaitza ez da fidagarria izango" (zenbatekoa, alegia)

Oro har, termino batek denominazio prozesuan eta ihartze bidean (termino gisa) eginiko aldaketak erabakiko du modu bateko edo besteko adierazpena:

- (a) koagulazioaren II. faktorea (ordinala)
- (b) pepsinogeno II polipeptidoa ("pepsinogeno II" dugu izena)

Alde honetatik ere, kontuan harturik espezialista hizkuntzaren erabiltzailea dela (ez duela, hortaz, hizkuntz analisi formalik egingo), haren intuizio linguistikoak esan beharko liguke (ikusuntu deskribatzailea hartzen baldin badugu) zein den delako terminoaren barne egitura. Era berean, deskribapen horrek argitu beharko liguke hainbat terminoren osagaien analisi kategoriala (*Ozeano Atlantikoa*) edo elkarteetako osagaien erlazio argumentala (*min hartzaile / mintz-hartzaile*). Baina hiztun horien (espezialisten) hizkuntz konpetentziak baldintza dezake azterketa, egoera idealetik urruntzen garen neurrian.

Bi dira bereziki zailak gertatzen diren egiturak espezialitateko testuetan:

- a) izenondo/izenak (aposizio modura ezar daitezkeenak)
 - nervio ciático* > *nerbio ziatikoa*
 - vena safena* > *safena zaina* (transposizioz)

eta hauen artean konbentzio grafikoz bereizten ditugun 'aditz-izen + egile' atzizkidunez osaturiko elkartuak

mintz hartzailea (iz - izond)

mintz-hartzaile (iz - iz)

b) zenbakiak, zenbatzaile edo aposizio gisako izen direlarik; euskararen inguruko hizkuntzetan morfosintaxiak bereiziko ditu egitura hauek:

15 días (plurala eta 'zenb. + iz' hurrenkera sintaktikoa; ohiko sintagma zenbatzaileduna, alegia)

día 15 (singularra eta aposizio erakoa)

Euskaraz, jakina, aposizioa nahasgarri gertatzen da, morfologia marka (numeroa) baita orduan bereizgarri bakarra eta beste estrategia batzuk behar ditugu arazo pragmatikoari aurre egiteko:

hilaren 15a

5. kontsulta

1999ko plan orokorra

ALDAKETA MORFOSINTAKTIKOAK

Besteak beste, forma sintagmatikoaren eta izen-elkarketaren lehia dugu espezialitateko hizkeretan. Euskal hizkuntzak ingurukoak ez bezalako baliabidea du izen-elkarketa eta hartaz baliatzen da nagusiki, izenak mailegatuta. Baina kontuan har dezagun espezialitateko hizkerak maiz darabilela izenondo erreferentzial ihartua edo kultur tematik eratorria. Hortaz:

birika-gaixotasunak

bihotz-patologia / patologia kardiakoa (?)

gaitz hipertrofikoa

Nazioartean ere halako batasun moduko bat suma daiteke izenondoa kultur tema gisakoa denean eta haren erreferentea corpus lexiko orokorrean ez dagoenean (*gaitz psikosomatikoak*), baina ez da halakorik bestelako kasuetan. Nahikoa da Europako Batzordeko *EuroDicAutom* datu-baseak eskaintzen dituen terminoak aztertzea hartaz jabetzeko:

- a) *somatikoa*, Spanish: *complicación somática*; English: *somatic complication*; Danish: *somatisk komplikation*; French: *complication somatique*; German: *somatische Komplikation*; Italian: *complicazione somatica*; Dutch: *somatische complicatie*; Portuguese: *complicação somática*

- b) *bihotz-* / *kardiakoa*, Spanish: *transplante cardíaco*; English: *heart transplantation*; *heart transplant*; Danish: *hjetetransplantation*; French: *transplantation cardiaque*; *greffe cardiaque*; *greffe de coeur*; *greffe du coeur*; German: *Herztransplantation*; Italian: *trapianto cardiaco*; Dutch: *harttransplantatie*; Portuguese: *transplantação cardíaca*; *transplante cardíaco*

Gainera, beti izango da forma sintagmatikoaren aukera: bihotzaren patologia, birikako gaixotasunak... Bestalde, izen elkarketaren idazkera ere gerta daiteke iluna (elkarte ilunak edo ezagutzen zailak). Forma sintagmatikora jo ez arren grafiaren bidez adierazten dira osagaiak (*idazmakina*, baina *ikas-sistema*):

elikatzeko materialak
elikadura(-)materialak
elika-materialak

Bestalde, maiz erabiltzen dira espezialitatean kultur temez osatutako hitzak: oro har, loturik idatzi dira (*antropologia*, *antropofagia*, *anisotropia*, *hepatomegalia*, *otorrinolaringologia*, *aminotriptilina*...).

Kultur temen artean garrantzi berezia dute hiperonimia-hiponimia bidezko paradigmatarako erabili ohi diren aurrizkiak. Halakoetan ezinbestekoa da erregistroaren arabera jokatzea; demagun gatzelerazko *super-* aurrizkiaren euskaratzea:

- a) '*es superbónico, es superflipante*' > '*oso polita da, ikaragarria, egundoko...*' Erregistro bereziko (lagunarteko hizkerako forma adierazkorrak ditugu hauek) hauetan euskarak bere baliabideak ditu (beste kontu bat dugu gazte-hizkera hori islatu nahi duen literaturako itzulpen lanaren arazoa).
- b) '*superficial* < *azalekoa*; *es algo superfluo*>'. Ez dugu maileguaren beharrik. Forma ihartuak ditugu hauek aurrizkirik gabeak (ikuspegi sinkronikotik). Hauetan ohi bezala jokatu ohi dugu, zuzen itzuliz, egokitzuz edo konpentsatuz, parafasia erabiliz... (ohiko testu itzulpena, ez nahitaez terminologikoa).
- c) Espezialitateko termino lexikalizatuak bere horretan hartuko ditugu (nazioartean nahikoa batasun eta adostasun baldin badago behintzat), esate baterako latinetik datorren '*superávit* > *superabit*' (Ekonomia). Ez dugu berdin jokatuکو beste jatorri batekoak eta espezialitatekoak ez diren edo nazioarteko batasunik ez duten terminoekin: '*superchería* (<*superchiera*, *it.*) > *iruzur*...'

d) <'Super' tema + hitz arrunta> erako elkartuetan bi sail bereizi behar ditugu

d1) espezialitatekoak: *superclase* > *superklase* (Biol), *superconductividad* > *supereroankortasun*. Bietan 'super' erabiliko dugu baina hitza aukeratzean batera edo bestera jo daiteke. Hauen azterketa zailagoa da, 'super' temaren esanahia 'gain', 'oso handi' edo besteren bat izan daitekeelako eta batzuetan mailegu osoak izan daitezkeelako (*superwelter*)

d2) hizkera arruntekoetan ez dirudi gaurko euskarak 'super' hori onartzen duenik: '*superabundancia* / *ugaritasun*, *oparitasun handi*', '*superdotado* > *dobain berezidun*, *talentu handiko*...' Azken hauen artean badira bi arazo berezi 1) hiperonimo-hiponimoen bidez edo hainbat tema erabiliz paradigmak osatzen dituzten hitz multzoak; hauetan hitzak nahasi gabe erabili beharrak zaildu egiten du euskararen bide patrimoniala erabiltzea eta mailegu zuzenera jotzen dugu: '*hipermerkatu*, *supermerkatu*, *merkatu*...' Arazoa handiagoa da hitz berria merkatu-estrategiaren ikuspegitik sortua denean, esate baterako enpresa jakin batek sortutako '*maxiak*' (gaztelaniaz ere nekezago onartzen dugu '*maximercado*' eta '*Maxi*' besterik ez darabilgu) 2) merkatu-estrategiak berak bilatu nahi izan duen 'super/-' bereizkuntza nola eman euskaraz? Nola bereizi '*olla rápida*' eta '*olla super-rápida*' ikuspegi komunikatibotik eraginkor gerta dadin? Baina azken galdera hau erantzutea lan honetatik kanpo dago.

Beste aldaketa morfosintaktiko batzuk balio terminologikoa duten sintagmak ihartzean gertatzen dira: '*hestegorri*'. Arlo didaktikoan bereiztea komeni da halako terminoak:

hitz bakarrekoak (soilak edo ihartuak): *hestea*, *hestegorria*
sintagmatikoak: *heste meharra*

eta 'iz + izond' erako sintagma arruntak: *heste urratua*

ALDAKETA MORFOLOGIKOAK

Badira aldaketa morfologikorako hainbat eragile: hizkuntz aldakortasuna bera, dialektala esate baterako (hala dugu gaur errazago inguru geografikoaren arabera '*Mesiasen etorrera*' edo '*Mesiasen etortzea*')... Baina beste batzuetan

aldaketa morfologikoak behar terminologikoari erantzuten dio, esparrua bereizteko edo aldaketa kontzeptualaren oinarri izateko. Horrela, ez dute erreferente bera honako hitz hauek: *normaltze / normalizazio; formaldu / formalizatu; kutsapena / kutsadura...*

Ikuspuntu didaktikotik hainbat ohar egitea komeni da (azterketa kontrastiboa alde batetik eta espezialitateko hizkeren finkapena bestetik):

- a) Maiz gertatzen da jokabide mimetikoa: profesorado 'lanbidea, nolokotasuna' (*irakaslego / irakasletza*) eta profesorado 'multzoa' (irakasleria, irakasleak). Itzulpenak kategoria aldaketa eskatzen du, hortaz, batzuetan (**irakaslegoak greba egin du*).
- b) Badira finkatze arazoak (*kutsapena, kutsadura...*) neurri batean behintzat eredu estandarrak erabaki beharrekoak (*abuldade, abuleria, abulkeria, abultasun*). Tasun semantiko apalagoko atzizkiek edo ñabardura semantikoa baino ezartzen ez duten aurrizkiek ere paradigma konplexuak osatzen dituzte, espezialitatean (neurri batean baita eredu orokorrean ere) finkatu beharrekoak. Gogora dezagun eredu estandarrak azken urteetako eratorri asko zuzentzen dituela (*eraikin / eraikuntza; garbigarria / *garbikaria...*)
- c) Aipatu ditugun aldaera dialektalak, aditz-izenarena esate baterako: *etorrera / etortzea...*
- d) Forma egokitzapenak: *diputazioa...* Baina badira hauen artean paradigmaren erregulartasunaren bila edo beste hainbat faktoreren eraginez sorturiko forma okerrak (fonetismo ihartuen aplikazioak 'merkatal', edo itzulpen tresna gisako egokitzapen hibridoak '*anbulategi*')

Aldaketa lexikoak

Aldaketa lexikoak: arlo honetan (espezialitatean) aldaketa semantikoari eta lexikoaren finkatzeari loturiko aldakortasun lexiko edo terminologikoa dugu aztertu beharrekoa. Izan ere, lehen aipaturiko aldakortasun grafiko, fonetiko eta morfosintaktikoak espezialitateko hizkeretan adierazkor gerta daitezkeen aldaketa semantikoari lotuak egon daitezke (balio terminologikoa izango du orduan).

Aldakortasuna ohikoa dugu hizkuntz erregistro batetik bestera iragatean (*oxigenoa / airea, kaka / gorozkia / eginkaia...*), baina bestelakoa da '*indarra*

/ *energia* / *potentzia*' bezalako paradigmatiko terminoen balio bereizgarria, halakoetan esanguratsua gertatzen da termino bat edo besteren erabilera.

Ikuspuntu didaktikotik badira arlo honetan ere gogoan hartu beharreko hainbat ohar:

- a) Hitz bat (edo hobeto esanda, unitate terminologiko bat) aztertzean ongi bereizi behar da zein motatako adierazpen unitatea den, benetan balio terminologikorik duen, eta abar. Demagun '*birus*' hitza: balio terminologikorik gabeko fraseologia adierazkorrenetik siglazioaren bidez osatutako unitate lexikalizaturaino bada aztertu beharreko tartea (gaztelania hartu dugu adibide honetan abiapuntu) :

"tengo un virus que no te cuento" / *"hau da hau burutik beherakoa"*
"lleva dentro el virus de la música" / *"musikaren harra darama barnean"*

"virus informático" / *"informatikako birusa"*

"virus de la hepatitis" / *"hepatitisaren birusa"*

"VIH" / *"GIB"*

- b) Bestalde, aldakortasun lexikoa nabaria da maileguen kasuan, nekez mailegatzen delako termino baten esparru semantiko osoa, espezializazio gradu handiko termino unibokoetan izan ezik. Demagun: *paciente* / *patient*

"el médico examinó a los pacientes" / *"medikuak gaixoak aztertu zituen"*

"un dentista con pocos pacientes" / *"bezero gutxi dituen dentista"*

"recibiremos a enfermos y otros pacientes" / *"gaixoak eta bestelako pazienteak ere ikusiko ditugu"*

Zer esanik ez dago, arazo hauek corpus lexiko orokorrekoak direla gehien bat, nahiz eta espezialitateko hizkeretako lexikoaren unibokotasunaren izenetan esparru horretan gertatzen diren desegokitasun nabarmenenak, bereziki hizkuntza batean termino bera espezialitate bat baino gehiagotan ihartzen denean:

monitor / *monitor(e)* Inf

monitor / *pantaila* Inf, Med ("seinalea pantailan ikusi")

monitor / *irakasle* Kir, Hez ("gimnastikako irakaslea")

monitor / *begirale* Kir, Hez ("udalekuko begiralea")

monitor / *laguntzaile* Hez ("anatomia praktikatiko laguntzailea")

- c) Estandarizazio-paradigmatik kanpoko terminoak hizkuntza bakoitzak bere baliabidez edo maileguen bidez eratzen ditu. Oro har, neke-

zago hartuko ditugu nazioartean batasunik ez dutenak edo erabilera orokorretik aldentzen direnak ('*quirófano*'). Esate baterako: *igualá*.

Spanish: *igualá con un médico de cabecera*; English: *family doctor contract*; Danish: *sygesikringens grundbeloeb*; French: *contrat avec un médecin de famille*; German: *Hausarztvertrag*; Italian: *contratto con un medico di famiglia*; Portuguese: *contacto com médico de família*.

- d) Badira hainbat termino espezialitatean adiera berezia izan arren hizkuntz orokorrekoak direnak: *alteración, trastorno, vena...* Nekez era daitezke hauek hizkuntza estandarrari bizkar emanda.
- e) Espezialitateko terminoak hizkuntza orokorrera lerratzen dira kontzeptuak zabaltzen diren neurrian. Orduan, aldaketa lexiko-semantikoa gerta daitezke.
- f) Terminologikoak ez diren adierazpen-unitateetan hizkuntza bakoitzak bere baliabideak erabiliko ditu erreferente kontzeptualaren berri emateko. Hona lehen aipatu dugun kontsumo-arloko testu bat (erreferente espezializatua da, baina ez testuaren tratamendua bera): it, esp, por

<i>Usare il segmento di filo interdentale non cerato per la pulizia sotto il borde gengivale.</i>	<i>Utilice el segmento de seda dental normal para limpiar dentro del surco gingival.</i>	<i>Utilizar o segmento de fio dentário para limpar dentro do sulco gengival.</i>
---	--	--

Hau da: "*ogni deposito di placca / la placa / toda a placa bacteriana*" edo "*filo interdentale non cerato / seda dental normal / fio dentário*" aukerek (hizkuntza bakoitza bere baliabideez baliatu da eta bere erdua bilatu du, nahiz eta batetik bestera transposizioak, zabalpenak... erabili) argi erakusten dute orain arte esandakoa.

TESTUAK ETA DIDAKTIKA

Espezialitateko testuak sortzeak, lantzeak edo itzultzeak etengabeko birformulatze prozesuan murgiltzea dakar. Egia da birformulatze hori definitzen eta zehazten zaila dela, baina langintza horretan abiatu gabe ere, hona ikuspuntu didaktiko aplikatutik zein diren birformulazte hori gauzatzen den esparrurik nabarmenenak:

a) Erregistro birformulatzea

Espezialitateko testutik (espezialistak espezialistarentzat sortu duen testutik) zabalkundeko testura (espezialista izan ez arren, gai horretan jantzia den edo izan daitekeenarentzat) edo kazetaritzakora (hartzaile arruntarentzat). Alde batetik ingurua gertatzen da aldagarri (hartzailea nagusiki, baita sortzailea ere, zabalkundeko testu gehienak ez baitituzte espezialistek idazten eta are gutxiago kazetaritzako testuak), baita komunikazioaren helburua: kazetaritzako testu zientifiko-teknikoetan (hobeto esanda, zientzia eta teknikari buruzko testuetan) gaiaren inpaktua da bilatzen dena, hau da, gizartean jakin-mina pitz dezakeena. Horretarako, jakina, lexikoa egokitzen da (errealitate kontzeptualaren berri ematen duten terminoak ordezkatu egiten dira corpus orokorreko hitzak erabiliz, edo terminoak berak erabiltzen dira, espezialista ez denaren araberrako egokitzapen semantikoak eginik); horrela halako edo bestelako pisu molekularreko *triglizeridoez* gabe, *gantzez* arituko da testu arrunta, edo *kolesterol* hitza jasoko du, *kolesterol on* eta *kolesterol txar* sasi-terminoak sortuz.

b) Moldearen araberrako birformulatzea

Kontzeptualizazio handieneko testutik (matematikako adierazpenak, edo fisikakoak, adierazten dute hau ongien) forma diskurtsibora ekarriko da testua. Besteak beste, hartarako behar diren aldaketa grafiko eta ortotipografikoak egingo dira. Beste batzuetan, berriz, testu estereotipatuen moldera ekarriko da testua, funtzioen araberrako forma ezarriz (inprimaki, klinikako orri, baimen emate orri... eta abarrekoak).

c) Kode birformulatzea

Eztabaidagarri izan daitekeen arren, pentsa daiteke hizkuntz kode batetik bestera aldatzeak, itzultzeak alegia, birformulatzea eskatuko duela. Arazo hori nabarmenago gertatzen da itzulpen teknikoan, baldin eta halako testuetan erreferente kontzeptualaren garrantzia eta nagusitasuna onartzen badugu.

Testu teknikoan idazketa edo itzulpenerako didaktikak kontuan hartu beharko du orain arte egin dugun testu teknikoan definizioa. Horrela, testu teknikoak itzultzeko orduan terminoen itzulpena izango dugu lan nagusia, baina ezin dugu horregatik ahaztu hizkuntza maila (hizkera teknikoa hizkuntza orokorraren azpisistema baino ez da) ezta testu maila ere: hau da,

itzultzaileak (hizkuntzalari, itzultzaile profesional edo espezialitateko aditua) ez du terminologia itzuli behar (terminologoaren lana da hori), testua baizik. EHUko Medikuntza Fakultateko Euskara Teknikoa irakasgaiko adibide batzuk eskaini nahi dira ondoren.

IDAZMENA

Agindua

Aurreko ataletan bezala, ez dugu hemen diskurtsoaren analisisiaz jardun nahi. Nahikoa dugu lantxo honetan didaktikarako ohar batzuk egitea. Horregatik, testu-tipologiaz eta espezialistek sortzen eta erabiltzen dituzten testuen ezaugarriaz aritu beharrean espezialistagai edo ikasleak testuak idazten edo itzultzen hasten direnean (gogora dezagun bestalde espezialista ez dela itzultzaile, ezta hizkuntza edo komunikabideetako profesional ere) kontuan izan beharreko hainbat gomendio.

Kontsigna edo agindua. Lehen esandakoaren arabera, hizkuntza bera baino zerbait zehatzagoa landu nahi dugu: espezialista batek (espezializazio-ko ikasle batek honako honetan) bere arloaz ari denean sortzen dituen testu mailako hizkuntz unitateak landu nahi ditugu. Hortaz, aginduak ere hartarako egokia izan behar du. Hauxe da 1998-99 erabilitako aginduetako bat (bi gai aukeran emanda: “*Medikuntza lanbidea. Medikun izateko arrazoiak*”; “*Botikina: non, nolakoa, zertarako*”).

1. Testua antolatu: ideia nagusi bakoitzeko paragrafo bat. Erabili puntua-zio-zeinuak eta testu koherentea osatu.
2. Kontu egin honako idazlantxoa *Elhuyar* bezalako zientzia zabalkunderako aldizkari batean (bigarren gaia) edo herri-aldizkari batean (lehen gaia) argitaratuko litzatekeela. Lehen gaiak azalpen subjektiboa eta iritzi pertsonala eskatzen du; bigarrenak, berriz, dibulgazio mailako deskribapen, azalpen edo aholkuen bidezko garapena. Aukera ezazu bietako bat.
3. Zaindu gramatikaltasuna. Ez egin hutsik (testua ez da ongi ulertuko).
4. Zaindu idazkera egokia: testuak erraz irakurtzeko eta ulertzeko modukoa izan behar du; baina ez idatzi zabalpenik gabeko perpaus bakun soilen segida modura, horrela nekez eskain baitaiteke gaiak behar duen zehaztasuna. Zaindu kohesioa.

5. Zaindu araua. Euskaltzaindiaren arauak errespetatu, zure gustukoak izan edo izan ez (kontu egizu lana non argitaratuko den).
6. Zaindu idazlanaren itxura: garbi eta txukun idatzi eta espazioa modu egokian antolatu.

Edo beste era batera esanda, ikasleari agintzen zaiona da antolamendu kontzeptualetik hasi eta ingurua kontuan izanik (hizkuntza funtzioak alegia) testu koherentea osa dezan. Ikusten denez, azkenerako utzi dira alderdi konbentzionalenak: akademi araua eta eredu estetikoari lotua egon daitekeen txukuntasuna, hauek ere gorde beharrekoak. Bestalde, agindua ia metahizkuntzarik gabe dago formulatua, modu errazean, hizkuntza ikasketak aspaldi utziak dituzten espezialitate-ikasleentzako (asko dira lau urte daramatenak, irakaskuntza ertaina utzi zutenetik alegia, hizkuntza formalki ikasi eta landu gabe).

Idazlana

Hona orain aginduari erantzunez osatutako idazlantxo bat eta horren gainean ikasle hauekin eginiko lana:

BOLONDRESAK

Batzuek ez daude adoz talde hauekin zeren ez dago garbi nola gestio-natzen diren eta erabakiak batzutan izkutuan hartzen dira. Eta, gauza txarrena, bolondresak daudelako beste batzuk lan gabe geratzen dira Gurutze gorrian bezala edo sanitateko urgentzian. Talde hauetan dauden pertsonak kobratu gabe egiten dute lan eta horretara dedikatzen dute beren denbora librean edo beren bizitzako zati bat. ONG delakoetan egoten dira. Eta talde hauek kontrolatu egin beharko dira.

ONG delakoak dirua hartzen dute administraziotik baina batez ere haien partaideek kobratu gabe egiten dutelako lan bizi dira, batzuk nazio barruan eta beste batzuk kanpoan.

Arlo askotan egiten dute lan, behartsuei lagunduz, marginatuak, errefuxiatuak babestea, ingurune pobreak garatzea, hezkuntza, alfabetatzen...

Lantze-zuzentzea

Idazlan hau eskola praktikoetan unibertsitateko ikasleei zuzentzeko emandakoan (Medikuntza, Odontologia eta Erizaintza titulazioetan) denek

hartu ohi dute bide bera: zuzenketa gramatikal formala (arau esplizitu formalen urratzeak identifikatu eta zuzendu) eta akademi arauari dagokiona (ortografia nagusiki). Horren ordeaz, beste bide hau proposatu ohi zaie ikasleei: “Aztertu + Berrantolatu + Zuzendu”. Azken batean, testua kokatzen ahaleginduko gara (sortzailea, hartzailea eta ingurua kontuan hartuta) eta testuaren koherentzia eta kohesioa bilatuko ditugu.

1. urratsa: zein da gaia?: “Boluntarioak”
2. urratsa: argumentua (argudioen eraketa): “Boluntarioek borondatez egiten dute lan erakunde jakin batzuetan, baina erakunde horien jarduna batzuetan oso argia ez denez erregulatu eta arautu egin beharko litzateke”
3. urratsa: zein dira ideia nagusiak?
 - Boluntarioak zer diren (definitu)
 - Boluntarioen lana Gobernu Kanpoko Erakundeetan (deskribatu)
 - Tesia: erakunde hauei egin ohi zaien kritika
 - Proposamena

4. urratsa: testua antolatu (ideia nagusi horietako bakoitzeko paragrafo bat eratu)

“Talde hauetan dauden pertsonak kobratu gabe egiten dute lan eta horretara dedikatzen dute beren denbora libre edo beren bizitzako zati bat.

ONG delakoetan egoten dira. / ONG delakoak dirua hartzen dute administratziotik baina batez ere haien partaideek kobratu gabe egiten dutelako lan bizi dira, batzuk nazio barruan eta beste batzuk kanpoan. / Arlo askotan egiten dute lan, behartsuei lagunduz, margintuak, errefuxiatuak babestea, ingurune pobreak garatzea, hezkuntza, alfabetatzen...

Batzuek ez daude adoz talde hauekin zeren ez dago garbi nola gestio-natzen diren eta erabakiak batzutan izkutuan hartzen dira. Eta, gauza txarra, bolondresak daudelako beste batzuk lan gabe geratzen dira Gurutze gorrian bezala edo sanitateko urgentzian.

Eta talde hauek kontrolatu egin beharko dira.”

5. urratsa: testua egokitu (sintaxia, lotura-hizkien eta antolatzaileen bidezko antolamendua...)

Boluntarioak dira beren denbora libre edo beren bizitzako zati bat lanean ematen dutenak, kobratu gabe.

Boluntarioek ONG delakoetan egiten dute lan batez ere. ONG delakoek diru-laguntza jasotzen dute administratziotik, baina erakunde

soldatarik gabe lanean ari direnei esker burutu ditzakete beren egitasmoak, nazio barruan edo kanpoan eta hainbat arlotan: behartsuei lagunduz, marginatuei lagunduz, errefuxiatuak babestuz, inguru pobreak garatuz, hezkuntza edo alfabetatze ekimenak antolatuz...

Baina hiritar batzuk ez daude adoz eta kritikatu egiten dute erakunde hauen lana. Alde batetik, erakunde hauen gestioa ez delako beti behar bezain garbia eta erabakiak maiz isilpean hartzen direlako. Baina kritikarik gehien sortzen duena da boluntarioen lanaren ondorioz gertatzen den lanpostuen murrizketa: Gurutze gorrian, larrialdietako zerbitzuetan...

Uste dut erakunde hauen jarduna erregulatu eta arautu egin beharko litzetekeela.

6. urratsa: estilo-orrazketa, ortografia zuzenketa... (ez ditugu hemen atal honetako lanak zehaztuko)

BOLUNTARIOAK

Boluntarioak dira beren denbora librean edo beren bizitzako aldi bat soldata edo saririk jaso gabe lanean ematen dutenak, beren ingurukoei laguntzeko asmotan.

Boluntarioek Gobernuz Kanpoko Erakundeetan (GKE) egiten dute lan batez ere. GKE hauek diru-laguntza jasotzen dute administrazioetik, baina erakundeetan soldatarik gabe lanean ari direnei esker burutu ditzakete beren egitasmoak, nazio barruan nahiz kanpoan eta hainbat arlotan: behartsu eta baztertuentzako laguntza-programatan, errefuxiatu eta aberriabeen babesean, inguru pobreen garapenean, hezkuntza edo alfabetatze ekimenen sustepenean...

Baina hiritar batzuk ez daude ados eta kritikatu egiten dute erakunde hauen lana. Alde batetik, talde hauen gestioa ez delako beti behar bezain garbia eta erabakiak maiz isilpean hartzen omen direlako. Baina kritikarik handienak sortzen duena da boluntarioen lanaren ondorioz gertatzen den lanpostuen murrizketa; hala gertatu obi da Gurutze Gorrian, osasun-arloko larrialdietako zerbitzuetan...

Uste dut erakunde hauen jarduna erregulatu eta arautu egin beharko litzatekeela. Administrazioak laguntza eskaintzen dien heinean, bederen, erakunde hauen kontu eta ekimenez guztiz garbiak izan beharko lukete eta soldatapeko langileen kalterako izan daitezkeen zereginak saihestu egin beharko lirateke.

Itzulpena

Itzulpena nahi bezala ulerturik ere (demagun hemen hizkuntzalaritza aplikatuko prozedura tekniko bezala ulertzen dugula) auzia dugu ea itzulpenak lekurik ba ote duen LSPen didaktikan. Aitortu beharra dugu espezialistak ez duela hizkuntzalaritzako formazio berezirik, baina aldi berean, itzultzaile profesionalak ez du espezialitatea ezagutzen. P. Leraten hitzetan (1995):

“Bezero batek itzultzaileari espezializazioko testu baten enkargua egiten dionean, zera esan daiteke ikuspuntu semiotikotik, itzultzaileak sitema bateko zeinuak beste sistema batera egokituko dituela, beste zeinu, kontzeptu, objektu eta hartzaileak dituen sistema batera, beste kultura batera alegia... Baina, nola itzuli testua objektuak ezagutzen ez baditu?. Hortaz, ulergarria da halako itzulpenak gero eta gehiago egotea diziplinako espezialisten esku, edo espezialista elebidunen esku. Haiek dira, testuaren logikaren ikuspuntutik epailerik onenak, beren jakintza arloko edo lanbideko terminoak eta erabilerrak ezagutzeko”

Beraz, gutxieneko hizkuntz formazioa (itzulpen teknikari dagokionez ere bai) jaso beharko du espezialistak, itzultzaileak espezialitateko testuaren erreferentzia den unibertso kontzeptualari buruzko gutxieneko jakintza behar duen bezala.

Arlo honetan, beraz, mikroegituraren azterketatik makroegiturara joango den analisisa proposatuko zaio espezialistagaiari. Eta besterik gabe, adibide pare batekin erakutsi nahi nuke hori.

Mikroegituraz

Ez dago ukatzerik maila honetako arazo handienak terminologikoak izango direla (horixe baitugu espezialitateko hizkeren berezitasunik nabarmenena)

“El paciente refiere sensación de cansancio a primera hora de la mañana. A la exploración se observa una masa fluctuante en vacío izquierdo, enrojecimiento de mucosas...”

Unitatez unitate aztertzen badugu konturatuko gara etengabe duela espezialistak edo ikasleak hautua egin beharra:

'gaixoak / pazienteak'
 'adierazten du / kontaktzen du / dio'
 'nekea sentitzen duela' (?)
 'goizaldean' (?)
 'azterketan / miaketan'
 'ikusten da' (?)
 'masa higikorra dagoela' (?)
 'ezkerraldeko abdomenean' (?)
 'mukosak gorrituta daudela' (?)

Eta horretarako ezinbestekoa izango du hizkuntz abiapuntua unitate hauen izaera bereizi ondoren:

- hizkuntza orokorreko unitateak
- unitate terminologikoak
- unitate sintagmatikoak
 - dilatación del ventrículo izquierdo*
 - índice de captación de antimiosina*
- unitate fraseologikoak
 - el paciente refiere que*

MAKROEGITURAZ

Ikus dezagun orain itzulpen lan batekin bete den prozesua. Honako ariketa hau ere 1998-99koa da (Medikuntza Fakultateko ikasleena) eta segmentuz segmentu eginiko itzulpenetik aurrera egitea proposatu zaie. Edo beste era batera esanik, itzulpen zuzenaren gainean eratu den testuaren birformulazioa:

En este texto se habla de la caries, uno de los mayores enemigos de los dientes, explicándose en el primer párrafo como texto informativo en qué consiste fundamentalmente el problema y en los siguientes párrafos en forma de texto instructivo lo que debe hacerse para prevenir este problema.

lehen itzulpena (mimetikoa)

Testu honetan hortz-baginen etsairik handienetako bat den txantxarraz hitz egiten da, lehen paragrafoan informazio-testu modura arazoa zertan datzan azalduz eta ondorengoetan instrukzio testu gisa zer egin behar den arazo honi aurrea hartzeko.

bigarren itzulpena (analitikoa)

Testu honetan txantxarraz hitz egiten da. Txantxarra hortzen etsairik handienetako bat da. Lehen paragrafoan arazoa zertan den azaltzen da. Zati hau informazio testua da. Hurrengo paragrafoetan arazoari aurre egiteko zer egin behar den esaten da. Paragrafo hauek instrukzio testu modura daude idatzita.

hirugarren itzulpena (azken formulazioa)

Ondoko testuan txantxarraz hitz egiten da, hortzen etsairik handienetako batez, alegia. Lehen paragrafoan arazoa azaldu egiten da (informazio testua). Ondorengoetan, berriz, arazo honen aurrean nola jokatu behar den esaten da (instrukzio testua).

Hau da, testuaren egitura orokorra aztertu eta horren ondorengo lantzea proposatu zaie ikasleei.

Egitura: bi ideia nagusi eta bigarrean bi adierazpen (hori arabera antolatuko da testua)

1. "Testua txantxarrari buruzkoa da"
2. "Testuan zehazki honako hau esaten da"
 - 2.1. "Txantxarra zer den" (1. zatian)
 - 2.2. "Txantxarra nola saihas daitekeen" (2. zatian)

Gainerako informazio gehigarriak (informazio hori txertatu egingo da):

- "txantxarra hortzen etsaia da"
- "testu mota hauei teknikoki informazio- eta instrukzio-testu esaten zaie"

Loturak (testuaren kohesioa lortzeko)

- ideiak bereizteko puntuak erabili dira: 1 (puntu) 2.1 (puntu) 2.2 (puntu)
- zabalpen eta gainerako informazioa esaldi bakoitzean txertatua:
 - apozizio modura komaren bidez bereizia (1. esaldian)
 - parentesi artean 2.1 eta 2.2 esaldietan, azalpen tekniko hutsa delako.

Ondorioak:

Labur-labur esan daiteke espezialitateko hizkeretan trebatzen ari den espezialistagai edo espezialistak honakoak hartu beharko lituzkeela kontuan:

1. Espezialitateko hizkera (hizkuntzaren azpisistema) osatzen duten atal nagusiak bi dira: corpus lexikoa (hiztegia) eta gramatika edo arau multzoa. Bietatik lehena dugu bereziki beregaina azpisistema horretan.
2. Espezialitateko hiztegiak: aktiboa (etengabe osatzen doana), interaktiboa (terminoak testuetan txertatu direnean baino ez dira benetan termino; hiztegi terminologiko bateko unitateak testuetatik baino ezin sor daitezke) eta errektiboa (arlo horretan ari diren agente guztien partaidetzak, baita espezialitatetik kanpoko erregistro edo sistemako erabile-rak eragingo dio espezialitateko corpusari eta eragin horietara makurtuko da espezialitateko hiztegia). Ezinbestekoa gertatuko da, besteak beste, terminologoen, hizkuntzalarien eta espezialisten elkarlana.
3. Testuen analisirako ez da nahikoa azterketa terminologikoa. Ezinbestekoa gertatzen da testu-analisia eta kontuan hartu beharrekoak dira ikuspuntu kognitiboa, linguistikoa eta pragmatikoa.

BIBLIOGRAFIA

CABRÉ, Teresa (1999), "La terminología. Representación y comunicación. Una teoría de base comunicativa y otros artículos." Barcelona: IULA (Universitat Pompeu Fabra)

GUTIÉRREZ, Bertha (1998), *La ciencia empieza en la palabra. Análisis e historia del lenguaje científico*. Ed. Península, Bartzelona

HOFFMAN, Lothar (1998), *Llenguatges d'especialitat (selecció de textos)* (itz.), Promociones y publicaciones universitarias S.A.. Barcelona

IDIAZABAL, Itziar (ed.). (1990), "Hizkuntzaren psikopedagogia". Labayru, Bilbo

LERAT, Pierre (1995), *Les langues spécialisées*, PUF, Paris

UGARTEBURU, Iñaki (2000), "La Traducción de Términos de Especialidad". 1st International Conference on Specialized Translation (110-113). UPF, Bartzelona

- (2001), “Osasun arloko testuak eta lexikoa XXI. mendeari begira”. Euskaltzaindiaren Biltzarra 2001, Bilbo (argitaratu gabea).
- (2001), “Zabalkundeko testuen egitura: osasun zientziak”. Prosa zientifikoari buruzko Biltzarra, EIE. Eibar 2001 (http://www.idazleak.org/biltzarra/dokumentuak/dokumentu_14.doc)